

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Apirilak 20, 61: zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

IGOR BAZek  
SASKI-NASKI  
Sari Handia  
irabazi!

R. SAMPEDRO:  
"Nikaraguakoa,  
iraultzarik goxoen"



# Abiagailuen kalentura



**MODELO  
BERRI-BERRIA**



**MUGARRI**

# Adi ATBren

# ikusle!

# 22.

k a n a l e r a  
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA



## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1,  
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

## Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karnele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Eukeni  
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo  
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus  
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo  
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,  
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,  
Iñaki Aranburu, Hankamotz,  
Maite Toledo, Atalataikoan.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 6.500 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-  
tzien erantzunkizunik.

## Alkoholaren gaineko publizitatea

Noe patriarkaren mozkorraldia publizitatu zenetik, kontaezinak ditu-  
gu alkoholaren inguruan sortu eta tin-  
koturiko enporioak. Alkohola eda-  
teak, hau da, gizona gizon denez ge-  
roztik eguneroko maiztasunez errito  
mailara jasotako fenomeno horrek  
marka guztiak hautsi ditu gauden  
mende honetako azken urteotan.  
Asmaezinak zaizkigun diru kopuruak  
inbertitu dira alkoholaren kontsumoa  
hedatzeko asmoz; bakar bakarrik, gi-  
zonaren irrazionaltasunaren bidez uler  
genezakeen asmo kaltegarria, hain  
zuzen.

Publizitatearen ahalmen ikaraga-  
rriak gobernu askoren beldurra sortu  
omen du, fenomeno haren ondorioak  
sufritzen hasi direla konturatu dire-  
nean. Neurri batzuk hartzeko prest  
leudeke... posible balitzaie. Baina,  
gezurra dirudien arren, gobernurik  
ahaltsuenak ere esku lotuta aurki dai-  
tezke, merkatu askearen arauak iku-  
tuezinak baizaizkie. Estatu bakoitzeko  
konstituzioak adierazpen librearen  
kontrako delitutzat har lezake, alkoho-  
laren zabalkundearen aurka gober-  
nuak sinaturiko erabakia.

Ez dut inoiz ulertu ahal izan, atle-  
tismo goi mailako talde baten espon-  
sorizazioa ginebra marka batek egi-  
tea. Edota bere irabazpideak ardoaren  
salmentetan oinarritzen dituen beste

etxe batek txirrindulari ekipo bat fi-  
nantzatzea. Niretzat kontraesan erral-  
doi bezain zinikoak dira. eta ez dit  
balio, zabalkunde horrek ez duela ge-  
hiegizko kontsumorako jarrera eragin  
nahi argudiatzeak; hori, zentzurik  
gabeko aitzakia da, ene ustez. Eta,  
kontuz!, ez naiz esaten ari zinismoa  
kirol-alkohol binomioan bakarrik  
ematen denik. Ez; orohar, Frantzia  
bezala, edari alkoholikoen fabrikatzai-  
leek Finantzak eta Nekazal Ministeri-  
tzen laguntza erdiesten dutenean, al-  
koholaren kontrako publizitateari  
“ezetz” esateko, orduan -dudarik  
gabe- zinismoa gizartearen maila  
guztietan aurki dezakegula iruditzen  
zait.

Estatu batzuetan, nioen bezala,  
hasiak dira neurri gogorrek hartzen,  
publizitatea murrizteko eta -zenbait  
kasutan- baita debekatzeko ere. Area-  
go, horietako batzuek euren konstitu-  
zioa aldatu behar izan dute. Premiaren  
ondorioak, noski. Alkohola ez da,  
jakina, arrakasta indibiduala nahiz  
kolektiboa lortzeko bitartekoa; ezta  
ere, giza arazoei aurre egiteko solu-  
zioa edota gatazka psikosozialak gain-  
ditzeko laguntza. Alkohola, soil soi-  
lik, droga gogor bat da, gizonaren  
osasuna hondatzen duena. Zertara  
dator, beraz, horren zabalkundea?

*Josemari Velez de Mendizabal*

*inpresio ona*



inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**AURRERATZEKO**

**SF**

**AIZKORA**

**AUTOZERBITZUA**

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**M A**

**ARENAZA**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA

**MARTINEZ**

**aroztegia**

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**PAZI-OLA SA**

Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 94  
ARRASATE

**Amazonia arrisku bizian**

Amazonia da munduko erreserba ekologiko handiena. Estatu espainola baino hiru aldiz handiagoa eta milaka animalia eta landare desberdinak gordetzen dituena.

Gainera, inguru horretan diren aberastasunak direla eta, leku askotako enpresak batu ditu, bukaezinezko kate ekonomikoa sortuz.

Hego Ameriketako herriek duten "kanpoko zorra" ordaintzeko dibisak behar dituztela eta, mundu osoko enpresa multinazionaleri atea ireki dizkie erreztasun osoak emanez euren negozioetarako. Bereziki Estatu Batuak, Japoi eta Europako (Estatu Espainola barne) enpresei.

Egurra, mineralak eta indar elektrikoa prezio txikietan lortzen dituzte, lan kutsakor gehienak bertan eginez. Eta gero, lehengai honekin egindako produktuak askoz ere garestiago saltzen dizkie herri behartsuei, zorra gehituz, eta holako negozio eta ustiapenen beharra mantenduz.

Azken urte honetan gizakiaren lanak ondorio beltzak izan ditu inguru horretan. Bide irekitzeak, suteak, urtegiak, meatzeak, izan dira Amazoniari beste itxura berri bat eman dioten ekintzak.

Eguneko hogeitamar espezie desberdin galtzen dira eta honela jarraituz gero, XXI. mendearen hasieran ez litzateke zuhaitz bat ikusiko Amazonian.

Erreserba ekologiko honen hondamenarekin batera, zenbait etnia ere galduko da. Betidanik oihanarekin oreka osoan bizi izan diren tribuak.

Baina hondamenak izango ditu beste ondorio batzuk mundu zaballean. Sute eta basoen murrizketak karbono dioxidoaren kopurua gehituko dute "efekto invernadero" delakoa larrituz, eta honekin batera eguraldi oreka aldatuz mundu osoan. Uholdeak, lehorteak, lurraren higadura, toki askotan jasan beharko da leku askotan.

Garbi dago beraz, Amazoniaren arazoa guztion arazoa dela, eta denoi dagokigula Amazoniaren alde borrokatzea, eta bereziki mundu kapitalistaren gobernuei.

Arrasateko EKI

**Zuzenketatxo bat**

Zuzendari jauna:

Apirilaren 6an kaleratu zen Arrasate Pressen, 37. orrialdean, ATBko atalean, Bisi Bengoa eta Karmele Zuazubiskar agertzen diren argazkiaren ondoko testoa jartzen du (8. lerrotik aurrera) "Bisik Eskoriatzako Irakasle Eskolako sukaldaria da", eta ez da egia, zeren eta Bisik darma urte pila bat ikastetxe honetako jantokian sukaldari bezala lan egingen.



Zuzenketa hau argitaratuko duzuelakoan, agurtzen zaituzte,

Carlos Uranga  
"Luis Eceiza" ikastetxe  
zuzendariak


**Agurra**

Oso pozik nago zuen errebista jaso behar dudalako. Oso urduri nago eta jakin nahi dut nolakoa den. Agur. Ah, eskerrik asko bialtzeagatik.

Ana Belen Alvarez



# Zure ustez alderdi politikoan diru iturriak garbiak dira?



**Joseba Barrena**  
(ikaslea)

Nik uste denetik egongo dela. Oso zaila da hori jakitea, eurek kontrolatzen bait dute arazoa.



**Mari Tere Altuna**  
(etxeakoandrea)

Ez, diru asko erabiltzen dute eskuartean eta. Denetatik egongo da, baina asko eta askok ez.



**Amaia Martiartu**  
(ikaslea)

Gutziz ez. Azken aldiak komunikabideetan entzuten denagatik ez du ematen oso garbiak izaten direnik.




**Patxi Agirrepeña**  
(ikaslea)

Ez. Azken boladan kasu asko agertu da prentsan eta politikoek harreman ugari izaten dituztela ere kontutan izan behar da. Lobbyng-ak ere ikusten hasi gara.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA**

**ARRASATE - ESKORATZA**

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

**BAZAR**  
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64


# Memesa

## 79 42 22

# I R A T I

**Ferrerias kalea**  
**Tfnoa: 79 71 80**

## BEHARREZKO TELEFONOAK



### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
------------------------------	----------

### UDALTZAINGOA

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZANTZA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### GARRAIOAK

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--	----------

## 20 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Nacido el cuatro de julio". 7 eta 9,30etan.
- Bertso afaria. AED elkarteak, gaueko 9,30etan.
- Antzerkia: "El ángel caído" antzeslaria ikusteko aukera "Tunantes de Norte" taldeko emakumeen eskutik. Amaia antzokian, gaueko 11etan
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

## 21 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Nacido el cuatro de julio". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Txotxongilo saioa. Kixka taldeak, "Nolako Zirrara" lana eskainiko du. Amaia antzokian, arratsaldeko 6etan.
- Altamirako jaiak:
  - Umeentzako marrazki lehiaketa. Arratsaldeko 4etan.
  - Txokolatada, umeentzako jolasak... Arratsaldean zehar.
  - Dantzaldia. Gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola

## 22 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Nacido el cuatro de julio". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

## 23 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Nacido el cuatro de julio". 7 eta 9,30etan.

- Fagorrera bisitaldia. Jubilatuentzat. Izen ematea Abaroan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina

## 24 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Nacido el cuatro de julio". 7 eta 9,30etan.
- Hitzaldia: "Elkagaien buxuntasun eta erabilketa" gaiaren inguruan. Hizlana: Eskarne Irastorza albaitaria. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, arratsaldeko 4,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena

## 25 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

## 26 OSTEAGUNA

- Zinea: Alai: "El club de los poetas muertos". 7 eta 9,30etan.
- Zineklub: "Matador" pelikula ikusteko aukera. Zuzendaria: Almodovar. Amaia antzokian, arratsaldeko 8,30etan.
- Hitzaldia: "Euskaldunok elkarlana posible ote? Partehartzaileak: Mari Karmen Garmendia eta Paulo Agirrebaltategi. Moderatzailea: Julien Arejolaiba. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan. AED elkarteak antolatuta.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Musakola

## IKASTAROAK

- **Clown ikastaroa.** Hamazazpi urtetik gorakoentzat. Apirilaren 28tik Maiatzaren 1era. Goizez eta arratsaldez. Izen emateak Gazte Zerbitzuan. Matrikula doan.
- **Jota ikastaroa.** 15 urtetik gorakoentzat. Maiatzeko eta ekaineko ostiraletan, 7etatik 8,30etara. Izen emateak Gazte Zerbitzuan. Matrikula doan.
- **Zanko ikastaroa.** Maiatza eta ekaineko larunbatetan, 4,30etatik 6,30etara. Izen emateak Gazte Zerbitzuan. Matrikula doan.
- **Euskal Soziolinguistika ikastaroa.** Bergarako UNEDek eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak antolatuta. Klase orduak, larunbatetan, 9etatik 1,30etara. Izen emateak UNEDen.

## LEHIAKETAK

- **II. Gernika Plano Lehiaketa.** Antolatzailea, Gernikako Musikazale Gazteak. Informazio gehiago Gazte Zerbitzuan.

## IRTEERAK

- **Vall D'Aran-era.** Apirilaren 28, 29, 30 eta maiatzaren 1ean. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta. Izen emateak, Besaide Mendizale Elkartearen egoitzan.

# Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahilitzuke.

• 1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihar-  
du, produktu berrietan sartzen, aulkietan batez  
ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.**

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

“Gaur egun, euskara gehiago erabiltzen hasiak gara Arrasaten, eguneroko bizitzan, eta bide horretatik aurrera egitea da gure helburua. Hor daude Arrasate Press, ATB, eta beste ekintza batzuk. Jendearen bihotzak mugitu nahi ditugu, denon artean euskara merezi duen tokira eramateko”

(Jose Mari Mujika AEDko lehendakariak, Udalarekin sinatutako hitzarmenean)

Euskaldun orenen proiektu ederrena euskara da, inolako zalantza barik. Arlo horretan, halere, etengabeko lana daukagu oraindik aurrean Arrasaten. Martxan jarri dugu euskararen gurdia, eta gutxi-ka-gutxika, aurrera daramagu nahiz eta oraindik aldatz goran izan. Dena den, helduko da aldatz behe-  
ran joango garen eguna”

(Pedro Urain, EAJko zinegotzi eta Euskara Bartzorde-  
buruak hitzarmenean)

Egokia eta aldi berean txalogarria iruditzen zaigu ATBko arduradunek programen kalitatea hobetu nahian ahalegin guztiak egitea; baina hortik, aurkezle gehienak korbataz azaltzera, badago alde.

Korbata, zintzarre luze hori Maritxu kajoi bezalako egunetarako soilik onartzen duen kolektibo honek argi utzi nahi du Arrasateko albisteak ETBtik ematen direnak besteko garrantzia edo gehiago dutela. Baina inolako zalantza barik, kalitate, kategoria eta seriotasun bera edo handiagoa eman dakiokela jertsez, al-kondaraz edo nikez besterik gabe azalduta ere.

Inor izorratzeko asmorik gabe, baina korbata gehiegi ATBn”

(Arbigara taldeak “Egin”eko Debaldeko Portaloian)

**Eta Aste Santuarekin, zer? Ba ote du, gure artean eta gaur, erakartasunik eta esanahirik?**

Duela gutxi, herri osoak, zahar eta gazte, erlijio aire ta giroan bizi-tzen zuen, eta gartsuki, Aste San-tua. Garai haietan -25 urte besterik ez dira- ez genuen ihes egiteko beharrik sentitzen. Dirurik eta ohi-turarik ez zegoelako? Behar bada, maila batetan bai, baina...

Asko gara gaur -eta nere ustetan gehiago- zahar, heldu ta gazte, ibiltzeko dirua ta oitura izanik ere, ihes egin beharrik sentitzen ez dugunok, kanpora atera beharrik, Aste Santuan preziso, ez daukagunok. Alderantziz baizik.


Herri-erlijio soziologikoa bukatu da, eta berarekin baita ere galdu dira erlijio-era horren zenbait azalgai eta adierazle: prozesioak, Aste Santuko kale-giroa, hainbat eta hainbat bi-txikeria herrikoiak eta kulturalki interesgarriak...Askok eta askok, eta ez bakarrik lehengo sinismenduak, holako nostal-gia edo ta erakar-mina somatzen dute; atzo bertan elizkoi ez den lagun batek esaten zidan: Hau ez da lehengoa... pasada bat zen, baina...Orain, zer? Edozein jai egun bezala...rutina...light y sin chispa de la vida.

Aste Santurik bai gaur egun Arrasaten? Bai horixe. Azalera eta formak aldatu badira ere, herritar guztiok parte hartzen ez badute ere, arrasatear multzo eder bat -askok uste duten baino ugariagoa- astiro ta gozoro Aste Santua bizitzen saiatzen da. Behar bada, sekulan baino egiatasun handiagorekin, inork bultzatzen ez bait dio, ez eta inork behartzen, bere barrua eta sinismen bizikitutasunak ez-ezik.

Eta garrantzizkoena. Lehen eta orain, pertsonaia eta e-rrealitate aberasgarriena eta beharrezkoena, Aste Santuan, Jainkoaren presentzia eta eragina zen eta da. Eta Jainkoak ez du huts egiten. Urtero ospatzen du gurekin Aste Santua.

Pazko zoriotsuak guztioi. Jauna zuekin.

José María Astigarraga Loyola  
Parrokoa



**PUB  
HAIZEA**



**SANIDES**

Parasitoei aurre egiteko  
Insektu narraztiak akabatzeko,  
arratoiak barne

**URTEBETEKO GARANTIA**

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

**K**abia

**Altzariak**

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.

Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE



# Arrasate Musikalen etorkizuna

## Akademia pribatu ala Udal kontserbategi?

Arrasate Musikalen egoera ez omen da nahi bezain ona. Hori dela eta, Udaleko Hezkuntza Batzordeburua den Aitor Orobengoak txosten bat prestatzeari ekin zion, gero Udalean aurkeztu eta azken erabakia hartzeko.

### Txostenaren aurkezpena

Bost zatitan banatutako txosten hori apirilaren 10ean aurkeztu zen Kultura eta Hezkuntza Batzordeetan.

Mota guztietako informazioa bildu da; Eusko Jaurlaritzak musika kontserbategietarako duen egitasmoa aztertu ondoren, Arrasate Musikal egitasmo horren barruan nola koka daitekeen ikusi nahi izan da.

Azterketa egin ondoren, bi proposamen luzatu ditu Aitor Orobengoak:

Alde batetik, Arrasate Musikal erdi mailako eskualde kontserbategi publiko bihurtzea; horrek 40 milioiko gastua suposatuko luke.

Bestetik, dagoenetan segitzea, hau da, akademi pribatu bezala.

Hezkuntza Batzordeburuaren ustetan egokiena lehen aukera izan go litzateke; baina ikusi egin behar.

Asteazken arratsaldean bildu zi-



Asteazkeneko bilera

ren zinegotzi eta akademiaren zuzendariak. Dena den, lehen bilera erabakiorra apirilaren 24ean izango da, eta behar izanez gero, azken erabakia maiatzaren 4ean.

### Hilabeteko bidaia Ekialdera?

Bien bitartean, Arrasate Musikalek aurrera darrai bere bidea egiten. Oraintsu, Japonia, Singapur eta Taiwanen hilabeteko jira egiteko proposamena jaso du.

### Besaideren irteera

Besaide Mendizale Elkartek Vall D'Aranera irteera antolatu du apirilak 28, 29 30, eta maiatzaren 1erako. Irteera 28an izango da, goizeko 5etan, Garibaiko geltokitik. Itzulera, berriz, astearte gauean.

Izena emateko epea apirilaren 25ean bukatuko da; Besaideko egotzan egingo dira, 7,30etatik 8,30etara. Prezioari dagokionez, bazkideek 4.500 pta, ez-bazkideek 5.000, eta gazteek 3.000 ordaindu beharko dute. Bidaia eta lo egitea bame.

### On Jose Maria

Argitaratu berria du Ikasbidek On Jose Maria Arizmendiarritari buruzko liburuxka. Antonio Oyarzabal apaiza izan dugu egilea, eta liburuaren izenburua honako hau: "Don Jose Maria Arizmendiarieta visto por sus discípulos". Enpresa eragilea alde batera utziz, Don Jose Maria apaiza zen aldetik aurkeztea izan dute helburu.

### Literatur lehiaketak

Alde batetik Oñatin egingo dena, prosa eta poesian. Lanak maiatzaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira Kultur Etxean.

Eta bestetik, Bergarako Lanak apirilaren 28a baino lehen bialdu beharko dira, Bergarako Euskara Zerbitzura.

Informazio gehiago Udaletxeetan emango zaizue bertako.

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**



**ETXE-AUNDI**  
Dastapen-menua  
martxoaren 30erako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
  - Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
  - Txahal-solomoa espinaka gainean Rossini saltsaz
  - Errekako amorraina ziapere sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
  - Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.
- 2.900 pza BEZ bame

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

## Udala eta AEDren arteko hitzarmena

*Hainbat ekintza lankidetzaz antolatu eta finantziatzeko*

Martxoaren 28an sinatutako eus-kara sustatzeko hitzarmenak sekulako oihartzuna izan bazuen, Udala eta AED Elkarteak ez dira hor gelditu.

Asteartean bertan siñatu zen Udaletxean bien arteko hitzarmena. Horren arauera, elkarlanean eta AEDren ardurapean, 1990 urtean burutuko dituzten ihardueretarako dirulaguntzak erabaki ziren.

### *Dirua zertan gastatuko*

Gauzak horrela, 90ean Arrasateko Udalak honako ekintza hauek subentzionatuko ditu:

—Jokin Zaitegi itzulpen laburren III. sariketa eta Arrasate 90 lehiaketak antolatzeko, 2 milioi pta. Era berean, 400.000 pta. 89ko lehiaketak lanak argitaratzeko.

—Milioi t'erdi Udaleku irekiak antolatzeko, eta 3 milioi t'ardi pasatxo eskolaumeentzako astebukaretako ekintzetarako.

—Milioi bat Kultur iharduerak egiteko: ikastaroak, hitzaldiak, etab.

—Beste milioi bat sentsibilizazio ihardueretarako: alde batetik Korrika, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Ibilaldia, etab. bezalako ekintzetarako. Bestetik autobusak, AEDren egutegiak, etab. aurrera ateratzeko ere.

—1.800.000 pta AEDren azpiegitura mantentzeko: lokala, pertsonala, etab.

—Era berean, euskarako komunikabideen arloan ere hainbat laguntza emango dira, bai *Arrasate Press-*



Jose Felis Diaz de Tuesta, Xabier Zubizarreta, Jose Mari Mujika eta Pedro Urain.

en eta bai *ATB*-n ere: zortzi pertsona kontratatuko dira (lau Arrasate Presserako eta lau *ATBrako*), AEDren esku eta ardurapean jarriko direlarik.

Gainera lokalen alokairu, argi, garbiketa, eta beste hainbat xehetasunen kontu hartuko du Udalak.

—Komunikabide saileko zuzendaria egun osoz lanean jartzea ere, sail honeta sartuko litzateke.

Dirulaguntza guzti hauek, urtarilean eta uztailean, hau da, urtean bitan aurreratuko dio Udalak AEDri.

### *Beste xehetasun batzuk*

Dena den, diru-laguntzez aparte, atzo arratsaldean sinatutako hitzarmenean beste hainbat puntu ere lotu

nahi izan zituzten. Hala nola:

—Udalak babestutako ekintzen kartel iragarleetan, eta orohar ekintza horien publizitatean AEDk babeslearen izena jarriko du.

—Urtearen lehen hiruhilabetean, bestalde, AEDk aurreko urteko gastuen zuriketa egingo du, eta bai ekintzen memoriaren txostena aurkeztu ere.

Hasieran aipatu bezala, beraz, elkarlanean dihardute Arrasateko Udalak eta AED Elkarteak, hainbat kultur ekintza antolatuz, onuraduna Arrasateko herria delarik.

Aipatu behar, gainera, hitzarmenean onartutako ekintza-zerrenda ez dela itxia, eta etorkizunean beste ekintza batzuk elkarlanean antolatzeko aukera zabalik gelditzen dela.

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5 Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

# LILURA

zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5. behea.  
Tfnoa: 79 69 72 ARRASATE

# HIESak 5 arrasatear hil

80 pertsonak izan ditzakete SIDaren antigorputzak

Apirilaren lehenengo igandean, bi gazte hil ziren Arrasaten HIESak edo SIDak jota. Ez dira lehenak izan, eta zoritxarrez, ez dirudi azkenak ere izango direnik.

Osakidetzaren HIESaren kontra plana koordinatzen den zentruetik aditzera eman zigutenez, aurtengo martxoan, zortzi ziren Arrasaten osasun kontrolpean HIESak jota zeuden pertsonak, beste hiru Bergaran, eta bi Oñatin.

Euren artean gehienak gizonezkoak ziren, eta drogazaletasunak batipat eramanez dituzte.

Arrasaten HIESak jota zeuden zortzi horietatik honez gero bost gutxienez hil egin dira, apirileko lehen asteburukoak bame.

Kontsultatu ditugun osasun iturrietan esan digutenez, martxoan zortzi baziren HIESak jotakoak, SIDaren seropositibo edo antigorputzak dituzten arrasatearrak gutxienez lauorgeri omen dira.

Guzti horietatik %37ak HIESa garatuko du, eta laster edo beranduago hil egingo dira (lehen bizpahiru hilabete irauten zuten; gaur egun, ordea, medizina berriei esker bizpahiru urte gutxi gorabehera).

Deba Garaia osasun mailan Arrasateko barrutia denez, HIESak jotako arrasatear gehienak Gasteizera joaten dira tratamendurako. Han, *Retrovir* farmakoa ematen zaie. Hori da, oraindik, eragin pixka bat duen botika ia bakarra.

Txarrena zera da, Arrasaten



Droga HIESaren arrazoi nagusi

HIESaren antigorputzak izan ditzaketen 80 pertsonetatik gora, oso gutxi jakingo dute HIESa dutenik, eta ezjakinean egonda, gaitza etengabe joan daiteke zabaltzen, eramaleek prebentzio neurririk hartzen ez dutelako.

## HIESaren aurrean zer egin

HIESaren frogatik egitea erraza eta merkea da. Analisi hori egin nahi duten arrasatearrek Gasteiz, Bilbo edo Donostiako edozein ospitaletara joan daitezke, eta anonimatoa aseguratuta.

Dena den, informazio gehiago jasotzeko, dei egin 28 26 66 telefonora. Bertan, laguntzeko prest dauden espezialistak aurkitzen dira.

## Usteak uste...

Aste Santu honetan HIESak bi gazte mondragoetar eramanez dituzte. Hauekin bost gutxienez badiira hildakoak gure herrian. Osakidetzan jaso genituen datuen arabera, joan den martxoan zortzi ziren HIESak jota zeuden arrasatearrak.

Horren arabera, esan ziguten kontsultatu genituen espezialistek, duda izpirik gabe esan liteke Arrasaten 80 direla, gutxienez, HIESaren antigorputzak dituzten herritarrak. Lauorgeri horietatik %37a HIESaren infekzioak joko du eta, bitartean txerto eranginkorrik topatzen ez bada, hil egingo dira.

Datu hauetatik bi ondorio larri ateratu daitezke: epe motzean HIESak eragindako heriotz gehiago izango dugu Arrasaten, gehienak mutil drogazaleen artean. HIESari aurre hartzen ez badiogu, bigarrenik, gaizta geroz eta azkarrago zabalduko da gure artean.

Zifra eta aurrikuspen hauek edonon serio jartzeko modukoak dira. Ez dago zertan alarmaren kanpaiak jo, baina geure artean dugun arazoari aurre egin behar diegu.

Ido horretatik, hiru gauza ditugu egin beharrekoak: onartu problema serioa dugula; ahalik eta informazio gehien zabaltzea HIESa prebenitzen ikasteko eta azkenik, baina ez azkena, gaitza gobernatzen eta gaisoekin bakean eta elkartasunean bizitzen ikasi behar dugu.

Hori da HIESaren hatzaparretatik ihes egiteko modua.

Joxe Aranzabal

M. Angeles Garbala eta Jose Alberdi doktoreak


KONTSULTA OFTALMOLOGIKOA

Astelehenerdik ostiralera arratsaldean.

Ordua alde aurretik eskatuta.

Partikularrak eta Lagun Aro.

J.C. Guerra kalea, 1-3.eskuina. Tfnoa: 77 08 96



Apirileko euriekin, sikutearen bukaera?

## Urkulu, kapazitatearen %56an

### Apirilean 131 litro ur jaso dira metro karratuko

Bolada luzean sikutea eguneroko gaia izan badugu ere, apirila heldu bezain pronto badirudi susmo txar horiek desagertzen hasi direla; ia egunero erori dira euri zaparrada galantak, eta ondorioz, urtegiak ere dexente homitu direla esan behar.

Urkuluko urtegiak 131 litro jaso ditu apirilean metro karratuko. Gauzak horrela, gaur egun 5.631.000 metro kubiko ur dago bertan, kapazitate osoaren %56a hain zuzen ere.

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzak jasotzen dute Urku-

luko ura; baina epe laburrean Elgeta eta Oñati ere sare berdinean sartuko dira. Ura Elgetara eramateko beharrezko obrak hasiak dira dagoeneko, eta laister hasiko Oñatikoak. Maiztzean hasiko lirateke ura Urkuluko urtegitik jasotzen.

Lasai egon gaitezke, ordea, dirudienez nahiko izango dugulako denontzat. Esan bezala, ur mailak gora eta gora egin du azken egunetan, eta teknikariek diotenez, horrela segituz gero hurrengo bost urteetan behintzat ez genuke ur mozketarik izango.

### Garabi zerbitzua

Prest egon daiteke San Juanetarako, Udalak martxan jarri nahi duen garabi zerbitzua. Txarto aparkatzeagatik garabiak jasoko dituen autoak Gelma aldameneko solairuan gordeko lirateke, eta handik jasotzeko, isunaz gain, 6.000 pta. inguru ere ordaindu beharko dira garabi zerbitzuagatik. Adi egon behar, beraz, aurrerantzean.

### 18 milioi auzoetarako

Udalak onartu berria du etorkizun laburrean auzo ezberdinetan hobekuntza lanak egiteko 18 milioi pta. ematea. Auzo horiek honako hauek izango dira: Santa Teresa, Uribarri, Erguin, Musakola, San Andres eta Garagartza. Guztietan ere, aspalditik konpontzeaz dauden hainbat arazori irtenbideak ematea bilatzen da.

### JAIOTZAK

Okina Gorroño, *Igor*. Martxoaren 30ean.  
 Urta Martin, *Asier*. Apirilaren 3an.  
 Amado Molero, *Ninoska*. 3an.  
 Serrano Rodriguez, *Sara*. 4ean.  
 Leiba Balanzategi, *Aitor*. 5ean.  
 Leiba Balanzategi, *Unai*. 5ean.  
 Aparicio Gonzalez, *Elisabeth*. 5ean.  
 Zabala Molpeceres, *Naiara*. 10ean.  
 Tena de la Concepción, *Tamara*. 14ean.

### EZKONTZAK

Juan Manuel Pando del Canto & Ana M. Markina Nuevo. Zibilez. Apirilaren 7an.



### Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
 Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
 A. Otalora doktorea  
 A. Estomba doktorea  
 M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...  
 Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia, etab.*

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
 telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

# SASKI-NA SKI

lehiaketa

Asteroko sariak



**KOLTEK**

Aranzabal Akobe  
elektrogailuak

ROWENTA  
ESKU-ASPIRAGAILUA




**MELIA BIDAIK**

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT  
BI LAGUNENTZAT



**OKENDO  
KIROLAK**

ZAPATILAK



**Ikatz**

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA  
AUTOMATIKOA



ASTE HONETAKO  
SARITUAK

BELEN AZURMENDI  
Esku-aspiragailua

IBAN DELGADO  
Bi lagunentzako afaria

AMAIA UMEREZ  
Kirol zapatilak

J. SANTIAGO MOYANO  
Argazki makina

Hileko sari handia



**SARITAUA:  
IGOR BAZ**

**Galdera:**

**Zein da ATBko musika saioaren izena?**

**Erantzuna:** .....

Izen-deiturak: .....

Helbidea: ..... Adina: ..... Tlfnoa: .....

## Istilu latzak Osakidetzaren barruan

*Behin behineko langileak mugagabeko greban*

Arrasateko Eskualdeko Ospitalean eta Anbulategian aurrera segitzen du behin behineko langileen lan-uztea. Joan den astean ekin zioten grebari, Osakidetzak maiatzean deialdi publikora atera behar dituen lanpostuen adjudikazioa, ebentualek urteetan egindako lana baloratuko duen merito-lehiaketa bidez egin dadila eskatzeko.

Lehen egunetan, grebalariek bete zituzten gutxieneko lanak; egunak aurrera, ostera, jarrerak gogortu egin ziren, eta joan den ostegunetik, Ospitaleko 60 inguru langilek eta Anbulategiko 17k Asanblada Iraunkorra ezarri zuten, liburutegia okupatuz, eta gutxieneko lanak ez egitea erabakiz.

Lanera itzultzeko bi baldintza eskatzen zituzten: langileak negoziatzeko mahaiari onartzea, eta errepresaliarik ez hartzea. Bete ez direnez, ordea, orain ez dituzte zerbitzu minimoak betetzen.

Zuzendaritzatik aditzera eman dutenez, Ospitaleko bi unitate eta kirofano bat itxi egin behar izan dituzte, oheak eta kirofanoak larrialdietarako soilikerabiliz.

Kanpo kontsultak, zerbitzu zentralak (erradiologia, laborategiak,



Ertzantzak grebalariek kaleratzen

etab), eta zenbait zerbitzu orokor, normaltasunaren barruan ari dira betetzen, pertsonal fijoari esker (12 orduko txandak egiten dituzte, eta oporrik gabe gelditu dira).

Asteburuan bertan, zuzendaritzak eskutitz eta telegramak bidali zizkien grebalariei, legeak agindutako gutxieneko zerbitzuak egin zitzatela eskatuz. Ertzaintzari ere lantxanda aldatetetan agertzeko eskatu zitzaien, lana egin nahi zutenek grebalariei mehatxurik ez jasotzeko.



Umore ona behintzet, ez zaie falta

Astearte arratsaldean, ebentual baten lana oztotpatzeagatik zuzendaritzak Ertzaintzari deitu, eta hauek kalera atera zituzten grebalariek.

Dena den, berriz okupatu dute liburutegia. Ohar bat ere kaleratu dute, ertzainen jarrera salatuz, eta mugagabeko greban eta era guztietako mobilizazioekin segituko dutela adieraziz.

Anbulategiko langile fijo gehienek ere, beste ohar bat kaleratu dute, grebalariekin elkartasuna erakutsiz.

### ARRASATEKO UDALA

Lanpostu hau bete behar da:

### OBRA PUBLIKOETAKO INJINERU TEKNIKOAK

Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 4ean amaituko da

Arrasaten, 1990eko apirilaren 10ean  
Alkatea

### LOREA

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ

**L**ARRINGAN  
auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



## Sei preso arrasatear epaituko

*Senideek, espetxean bizi duten egoera salatu*

Astelehenean Lorea Zeziaga, Kris Zeziaga eta Beronika Garai epaituko dituzte Madrilén. Fiskalak zortzi urteko gartzela-zigorra eskatzen du bakoitzarentzat. Kris espetxean dago gaur egun; Beronika aske utzi zuten hilabete espetxean eman eta gero; Lorea, berriz, toki ezjakinean omen dago aspaldian.

Asteartean, osterá, Xabier Atxa, Igor Letona eta Joseba Korta epaituko dituzte. Igor eta Josebarentzat Fiskalak zortzi urteko zigorra eskatzen du; Xabierrentzat, osterá, 16 urtekoa, atxilotu zutenean 18 urte

beteak zituelako. Igor eta Joseba Carabanchelen daude gaur egun, eta Xabier Alcalan.

Epaiketa hauetara joateko, bi autobus aterako dira Arbolapetatik.

Senideek, bestalde, gutun bat kaleratu dute, presoén egoera salatu. Igor eta Josebaren kasuan, eskolara joateko debekua, elikadura eta higiena lirarteke puntu gogorrenak. Xabier Atxa zigor zelda batean dago, galeria osoan bera bakarrik. Zabarteren kasuan, berriz, aho infekzioa sendatzeko medikoek egiten dioten ukapena salatu nahi dute.

### ■ Mus txapelketa

Joan den astean burututako Elkarteen arteko Mus Txapelketaren, onenak honako Elkarte hauek izan genituen: Leintz, Torrepe, Santa Marina, eta Alkartu. Gaur ostirala, hilak 20, eta hurrengo ostiralean, hilak 27, jokatu dira finalerdiak.

### ■ Goier eta Saiolan

Udalak milioi bana emango die Goier eta Saiolan kooperatibei. Dirulaguntza honen helburua, goi mailako irakaskuntza eta enpresa berrien sustapena bultzatzea litzateke.

### ■ Saihesbidea maiatzean ireki?

Saihesbideko lanak aspaldi bukatuta egon behar baziren ere, oraindik gaur obratan dihardute. Itxura denez, Nafarroa Etorbideko sarrerirteera amaitzea falta zaie. Baliteke maiatzaren hasieran irekitzea autoentzat, baina epeak betetzeko orduan egiten dituzten hutsak ikusita, batek daki!

### ■ Ostiralean antzerkia

“Tunantes del norte” taldeak gaueko 11etan hasita, Amaia antzokian eskainiko duena. Antzezlaná, ‘El angel caído’.

### ■ Altamirako jaiak

Larunbatean, apirilak 21, Altamirako jaiak ospatuko dira. Goizeko 10,30etan hasi, eta egun osoz luzatuko den saltsa ederra!

**INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO  
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN**

Kataideko Industrialdea 1 eta 2  
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxes: 798411 ARRASATE

**VE ECUADOR**

Kontzesifno 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

Aurreko batean Danimarkako lagunak izan genituen Arrasate Press bisitatzen. **Flemming Prehn**, **Gurli Jacobsen** eta **Mogens Bengtsson** maiatzean kooperatibak bisitatzera etorriko den talde handiaren bidaia prestatzera etorri ziren. Flemming eta Mogens sindikalistak dira eta lehenengo aldiz etorri ziren. Gurli soziologoa da eta bera beterranoena, hau haren boskarren bidaia izan bait da Arrasatera ▶



◀ Nor arraio zen **Joe Mondragon**? New Mexicoko **Milagro** herrian bere aitaren lurrak saldu ez zituen gizon gaztea. Egun batean, ordea, bere lur sikuak kanaleko uraz ureztatzea erabaki zuen eta bazterrak aztoratu. **Robert Redford**-ek kontatu du Joe Mondragonen historia *Un lugar llamado Milagro* filmean. Zuen bideodendetan. VHSn.



▲ Bi magnolia zeuden Azoka kaleko txoko honetan, baina basati batzuk bat apurtu zuten, eta bestea konpainiarik gabe utzi. Aurrekoan, "**Parques y Jardines**"ekoek beste magnolia bat landatu zuten. Herrian zehar hainbat arte, artelatz, basiku, urki, xarma eta ezki landatu zituzten, hamabost bat denetara, milioi erdi pta. pasatxoko aurrekontuaz.

◀ Eusko Jaurlaritzak liburu saltzaileen batzorde batekin batera Euskal Elkarte Autonomoan antolatzen dituen hamabost **liburu azoketatik** sei bakarrik, Arrasatekoa tartean, autofinanziatzen dira. Azken urteetan Garibai kalean jarri izan den liburu azoka, aurten. urriaren 9tik 14era etorriko da.

## LASAGABASTER

## Jantzidenda

**Bertan izango duzu beti modako  
gauzarik onenen aukera zabalena**


Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97





◀ Banatu ziren, banatu ere, Saski-naski lehiaketari zegozkion hirugarren asteko sariak. Etxe-Aundiko afaria Isabel Zuazubiskarrentzat; Aranzabaleko aspiragailua Jon Galdosentzat; Ikatze-ek ematen duen argazki-makina Txaro Balanzategirentzat; eta argazkian agertzen ez den arren, Okendo Kirolak-ek ematen duen zapatila pareia Itziar Ullibarrrik jaso zuen.

Hamasei urte elkarlanean aritu ondoren, Jose Luis Martinez Ubago hematologo arrasatearra eta Ignacio Gallo zirujau erandioarrak sistema berriari ekin diote, Donostiako Poliklinikan, bihotzeko gaitzak zirujia eta anestesia erabili barik tratatzeko. Honez gero, era horretako bi ebakuntza egin dituzte, munduan zehar oraindik oso gutxi zabaldu den sistema hau erabiliz ▶




## izen propioak

■ **Sabin Martiartu**, 55, arrasatearra, Deba Garaiko Udal Elkarteak bailarako lanbide heziketaren ardura-dun izendatu du.

Sabin Eskola Politekniko irakaslea da eta bertan aritu da lanean azken 31 urteetan. Iaz Tailer Eskolaren ardura beren gain hartu zuen. Maestria ikasketak Eskola Politeknikoan burutu zituen.

■ **Santi Aristimuño**, 39, Gasteizen bizi den arrasatearra, Udalak Gorostiza auzoan eraikitzeko asmoa duen laguntza ofizialeko etheen proiektua burutuko du. Santik Valladilide eta Madrilen ikasi zuen Arkitectura.

■ **Iñigo Roldan**, 17, aretxabaletarra, San Marcial kronoigoera irabazi zuen larunbatean Irunen eta Debako lasterketa igandean. Iñigo Lagun Aro Fagor taldearekin ari da eta hau du bere lehen urtea gazte mailan. Aurten Uzarragako igoera ere irabazi du. Dorletako Ama ikastolan, bigarren REM ikasten dihardu.




ERRASTI KRISTALDEGIA  
Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE

# Kaleak abiagailuz beterik

## EEBBetatik etorritako kirola modan gure herrian

Azkenaldian gure herriko mutikoen artean kirol edo joku berria hedatu da, patinetea hain zuzen. Iaz hasi ginen abiagailuak nola ugaltzen ziren ikusten eta dagoeneko gure herriko haurtzat patinetea bihurtu da atseginen duten kirolarietako bat. Aste Santuan Arrasateko Udalak abiagailuan aritzeko proposatzen U bat jarri zuen Zaldibarren, kirol berri honi nolabaiteko onarpen ofiziala emanaz.



Ez hain sarri, baina neskak ere ikusiko ditugu abiagailu gainean

### Surf-aren ondorengoa

Abiagailua, izatez, gurpilak jarri zaizkion surf ohola dugu. 60. hamarkadan, EEBBetako ekialdeko itsasertzean sortutakoa. Kirolak ordutik hona hedapen zabala izan du eta patineteak berak garapen handia izan du. Gutariko askok gogoan izango du orain dela hamarren bat urte gure artean hedatu ziren abiagailuak. Ordukoak estuak genituen, egurrezkoak zein plastikozkoak izan zitezkeen eta normalean oso erraz apurtzen ziren.

Gaur egun gure herriko umeei eskuartean ikusten dizkiegun abiagailuak, ikusi orduko pentsa genezakeena baino tresna garatuagoak dira. Ohola bera, zazpi ohol mehez osatua dago. Honek abiagailuari malgutasuna eta gogortasuna ematen dio. Oholaz gain, abiagailuak gurpilak ditu, baina gurpil hauek goma berezi batez egiten dituzte, ez daitezzen igurzpenaz erraz puska. Patineteak altura har dezan bestalde,

ohol eta gurpilen artean jasogailu bezala erabiliko diren zenbait xafla ezartzen zaizkio. Balazta ere ipini beharko diogu, patinetea nahi dugunean gelditu arazteko. Edonola ere, oraindik ez dugu abiagailua osatu; oinak ohol gainean laban egin ez dezan lixa jarri beharko diogu eta azkenik, erabilerarekin honda ez dadin babesgailuak beharko ditu.

**Abiagailu merkeenak 9.000 pta. inguru balioko du eta garestienak 20-30.000 pta. inguru**

Patinetearekin har daitezkeen kolpeak nolabait leuntzeko belauneako erabiltzea komenigarria izango da eta eskuak patinetea hartzean lixarekin urra ez daitezen, eskularruak erabiltzea ere, ez da txarra izango.

### Ez oso merkea

Kalitatearen arabera, abiagailuen salneurriak gorabehera handiak ditu. Abiagailua lehen aldiz erabili behar duen haur batek, asko jota 9.000 pezeta inguru ordaindu beharko du. Patinete hau oso osorik saltzen da eta zenbait dendarik azaldu digunez, nahiko erraz puska daiteke, nahiz eta ezaritu batek nahiko izango duen. Arituek 20-30.000 pezeta bitarteko abiagailuak izango dituzte. Patinete hauek ez dira entsanblatuta saltzen, eta beraiek osatu beharko dituzte. Patinetea horrela erosiz gero, norberak gehien atsegin dituen osagarriak jarriko dizkio, ohola etxe batekoa eta gurpilak beste batekoa izan daitezkeelarik.

### Jolas arriskutsua?

Zenbait herritan, patineteaz kalentan zehar aritzea debekatu egin dute, herritarrei eta kirolarietara ere, sor dakizkiekeen arriskuak ikusirik. Gure bailarako herrien artean Bergara dugu neurri hau hartu duen bakarra. Euskal Herrian patinetea kaleetan erabiltzea debekatu zuen lehen herria Getxoko Udala izan zen. Herri honetan, patinetean zebilen haur batek harrapatu ondoren, emakume bati oina moztu behar izan zioten. Istripu haren ondorioz, aipatutako neurria hartu zuen Getxoko Udalak.

Arrasateko Udalak ez du gai honen inguruan neurririk hartu, baina herriko udaltzainek zein ertzainek, haurren

bat leku arriskutsuren batean aurkituz gero, kendu egingo diote patinetea.

Patinetean aritzea, berarekin irratitzea baino gehiago da. Oreka eta trebezia handiz, eskailerak zein hormak igo daitezke.

**Zergatik horren hedapen zabala?**

Kirol honen hedapenaren atzean, abiagailu etxeen interesak aurkituko omen ditugu, herriko zenbait dendarik azaldu digunez. Kirolak indarra har dezan, publizitate handia egin behar omen da eta atzerriko iragarki zein filme ugaritan ikusi ahal izango ditugu abiagailua trebezia handiz erabiltzen duten kirolarien irudiak.

Gure artean abiagailuak indarra har dezan, promozio lan handia egin omen da eta zenbait erakusketa eta txapelketa ere antolatu izan da. Bestalde, gai honen inguruko aldizkariak ere salgai ikusiko ditugu han eta hemen. Hau ikusirik, normala da hurrek kirol honi ekitea, kontutan izanik kirola bera ez dela inolaz ere aspergarria.



Orduero ikusiko dugu norbait Zaldibarreko pista berrian.

## Ez goaz modaren atzetik

**A**stearte arratsaldea da, nahiz eta euria goian behean aritu, Zaldibar ingurura hurbildu gara, abiagailularien bat aurkitzeko esperantzaz, aspaldi honetan herriko txoko ahaztu hori bihurtu bait da mutiko hauen gunerik gogokoen.

Harrituta, mutiko bakarra ez, taldetoxa ikusi dugu beren patineteekin alde batera eta bestera eguraldi ilunari kasurik egin gabe.

Hurbildu eta Sergio, Ander, Aitor eta Igorrek in solasaldia izan dugu, kirol honi buruzko beren eritziak jakin nahian.

Igorrek, lagunentzat "Kongito", berak beste kirolik ez duela egiten adierazi digu. Duela urtebete patineteari serio ekin zion eta ordudanik hori du bere kirol bakarra. "Eskolan beste kirolen bat egin behar izaten

du, baina eskolatik irten orduko, patinetea hartu eta hona etortzen naiz. Egunean hiru bat ordu ematen ditut patinetearekin. Lehen saskibaloian ere aritzen nintzen, baina orain beste kirol horiek ez ditut jokatzeko". Igorren lagunek ez diote patineteari Igorrek bezain gogor ekin. Oporraldian otorduetarako denbora kenduz gero, egun osoa ematen dute mutiko hauek abiagailuekin. Herrian, laurogehiren bat omen dira serio ari direnak.

Patinetearena, moda izan daitekeela aitortu arren, curak gustatzen zaielako ari omen dira. Duela zenbait urte ere, patinetean ari omen ziren, baina orduko abiagailuak gaurkoekin zerikusirik ez zutela eta, utzi egin omen zioten ibiltzeari. "Lehengoak oso erraz apurtzen ziren, gaur egungoak berriz, astoz hobeak dira,

gogorragoak, akzesorio gehiagorekin" bota du Sergiok.

"Patinetea beharbada arrisku-tsua da, baina motorrean edo kotxean ibiltzea arriskutsuagoa" diote denek aho batez, zenbait herritan kalean zehar patinetearekin ibiltzea debekatu dutela aipatu diegunean. Neurri hori, ez dute begi txarrez ikusten, halabaina, debekua ezarritz gero, gune egokiak jarri beharko lituzketela garbi dakusate.

Zaldibaren Udaletxeak jarritako pista ezer ez baino gehiago badela onartu arren, txikia omen da eta banan banan ibili beharrak, besteak erabat asper arazten omen ditu. "Pista gehiago edo handiagoa jarri beharko lukete, hau oso eskasa da". dio Igorrek, besteak baieztapen honekin ados egonik.

**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

# Clown Ikastaroa



17 urtetik gorakoentzat

**Noiz:**

apirilaren 28tik maiatzaren 1era  
(maiatzaren 1eko zubia)

**Ordutegia:**


goizez eta arratsaldez  
(ikastaro trinkoa)

Matrikula doan.

Plaza mugatuak.

**Izen emateak:**

Udaleko Gazte Zerbitzuan 79 09 00



# Jota Ikastaroa



15 urtetik gorakoentzat

**2 maila:**

1. hastapena: arin-arin eta fandango
2. Bergara eta Tuterako jotak.

**Noiz:**

maitz eta ekainean  
ostiraletan, 7etatik 8'30etara

Matrikula doan.

Plaza mugatuak.

**Izena emateko:**

Udaleko Gazte Zerbitzua 79 09 00.



# “Munduko iraultzarik goxoena”

Roberto Sampedro “Pitote”, Nikaraguaz

**Roberto Sampedro “Pitote” arrasatearrak, hamabost hilabete pasa ditu Nikaraguan.**

**Maiteminduta etorri da hango iraultzaz., Dogmatismoaren aurkako etengabeko borroka eta kreatibitatearen etengabeko exaltazio bezala definituz du. Hemengo jendeari nolako iraultza berezia den ikustera joateko gomendatzen dio.**

— **Nikaraguara alde egitean, herri hari buruzko ideia jakina izango zenuen. Bueltatutakoan ideia bera al duzu?**

— Beharbada iraultza mitifikatuegia nuen. Hemen, iraultza aingerutxoek egiten dutela, dena ondo irtetzen dela pentsatzen dugu. Hara joandakoan errealtatea gogorragoa eta zailagoa dela ikusi nuen. Indar produktiboen garapen eskasa eta kanpoko laguntza beharrezkoa duten herriek, mendeetan izan duten miseria ekonomiko gaingaitzea oso zail dutela konturatu nintzen. Egoera hori gaingaitzea ez dela hamar urtetako lana, 20, 40 edo 50 urtetakoa baizik jakin nuen.

Nikaraguan, gizartearen aldaketek ideologiei baino herrien egoera objetiboei erantzuten dietela konturatu naiz; azken finean, iraultzek ez dietela horrenbeste gure nahiei erantzuten eta bai ordea, herrien baldintza errealei.

— **Sandinistek iraultza irabazi zutenetik Nicaragua oso pobretu dela aipatzen da. Egia al da?**


— Errealista izan beharra dago. Nikaragua hirugarren munduko herria da, bere indar produktiboen garapen eskasa duen herria, bere aberastasun ahalmen guztia gartzeko beste herrien laguntza ekonomiko handia behar duena. Nicaraguak laguntza jaso beharrean, bahitura eta blokeoa baino ez ditu jaso. EEBBen bahitura ekonomikoak eta EEEko estatuen

elkartasun ezak, Nikaraguari bere ahalmen ekonomiko ezin garatu izana ekarri dio. Are gehiago, bere aberastasun eskasak neurri handi batean gerrari eskaini behar izan dizkio. Egoera honek hamabi urtetan txirotze handia ekarri dio herriari. nikaraguarren lormena hiru laurdenetan jaitsi da.

Edonola ere, garbi utzi behar da, Fronteak iraultza oker gidatzeak ez duela eragin Nikaraguaren ahalmen produktiboaren jaitsiera, EEBBen eraso politikak baizik.

— **Sandinistek hauteskundeak galtzea pobretze horren ondorio moduan uler daiteke?**

— Inork ez zituen emaitza hauek espero. Jendeak Violetari botoa emateko faktore ekonomikoak puntu nahi-



Roberto Sampedro, “Pitote”

eta Fronteak berarekin negoziatu dezan baizik. EEBBek egoera horretan bahitura kenduko zuela pentsatu zuten. Frijolen, estamangoen botoa izan da hau.

Gerra ere aipatu beharra dago. Hamasei-hogeitalau urte bitarteko gazteen botoa dugu hau. Gazte hau sandinista izanda ere, ez dago prest zerbitzu militar patriotikoan bi urte emateko edo behar bada mendian hiltzeko. Gazte honek UNOri eman dio botoa zerbitzu militar patriotikoa ken dezaten.

Hirugarren faktorea, az-

**gerta daiteke?**

— Jendeak hemen iraultza galdu egin dela esaten du. Nire ustez hori ez da egia. Iraultza ez da egun batean irabazten eta beste batean galtzen. Iraultza prozesu dialektikoa da, iraultzak aurrera darrai. Fronte Sandinistak garbi utzi du hamar urte hauetan lortutakoa ez duela zapuz dezaten utziko. Momentu honetan Fronteak baldintzak eta botere politiko erreala ditu, Daniel Ortegak esandakoa egia bihurtu ahal izateko, “*gubernatuko dugu, baina azpitik*”. UNOK iraultzaren lorpen hauek hankaz gora jartzeko asmoak dituela ikusiko balu, Fronteak herri erakundeak eta herria mobilizatze gaitasuna du. Fronteak nagusigo elektoralak galdu du, baina ez nagusigo politikoa.

Horrek ez du esan nahi etorkizunean UNOK eta EEBBek botere erreala hori gal dezan ahaleginak egingo ez dituztenik eta Frontea ahultzen doan neurrian, iraultzaren lorpenak zapaltzen ahaleginduko ez direnik.

Momentu honetan, ordea, indar korrelazioa sandinisten aldekoa da eta UNOK badaki goberna dezakeela, baina sandinistekin ados jarririk.

**“Gizartearen aldaketek ideologiei baino herrien egoera errealei erantzuten diete”**

ko garrantzitsua izan da. UNOri botoa eman dion jendearen %40a soziologikoki sandinista dela esan daiteke. Iraultzaren lorpenei eustearen alde daude. Baina Fronteak irabaziz gero, edo oposizio ahularekin irabaziz gero, politika ekonomiko berarekin segituko zuela pentsatu zuten. Botoa beraz, UNOri ematea erabaki zuten, ez UNOK irabazteko, oposizio indartsu batean egon dadin

ken denboraldian Frontean eman zitezkeen korrupzioak zigortzea izan daiteke. Ezin dugu egoera idealizatu, administrazioan lanean eta bere egoeraz aprobetxatu den jendea ere badago. Ezin esan genezake egoera hedatua zegoenik. Fronteko jendea pobrea zen eta izaten segitzen du, baina zenbait bere egoeraz aprobetxatu da eta herriak hori ikusi egiten du.

— **Aurrerantzean zer**





## Deba Arroa pilota txapelketa

Aurrera darrai Deba Arroa Txapelketak, eta finalerdiak heltzear daude-nean, Arrasateko bikoteak ondo kokatuta aurkitzen ditugu.

Alebin mailan, arrasatearrak lehenengo postuan, 6 puntuz; Haur mailan, arrasatearrak bigarren, 4 puntuz; Gazte mailan ere gure bikotea bigarren postuan, 4 puntuz; eta bukatzeko, Nagusi mailan mondragoetarrak hirugarren tokian aurkitzen ditugu, hauek ere 4 puntuz.

Gogoratu kategoria bakoitzean bi bikote pasako direla finalerdietara.



## Ramon Jausoro

26 urteko maratoilari atxabaltarrak, Londresko maratonia korrituko du apirilaren 22an. Sabin Padillaren aholkuari jarraituz, eta Arrasate Kirolak-ek emandako dirulaguntzari esker, Ramon Jausorok 2 ordu eta 17 minutuko marka hausteko ametsa egia bihurtzeko aukera izango du. Hemendik, zorterik onena opa diogu!

## Judo Eskola Arrasaten

Arrasateko Judo taldeak, Aukearen laguntza medio, berehala jarriko du martxan Arrasateko Udal Judo Eskola. Klaseak astelehen, astearte eta ostegunetan izango dira, Musakolako kiroldegian, arratsaldeko 7etatik 8etara. Prezioa, 750 pta. hilabetero. Badirudi, beraz, Arrasateko judo-zaleak zori onean daudela!



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa  
metalikoak  
Otzaratzarrak  
Giltzak gordetzeko armairuak  
Erremintak eramateko gurdiak  
Erremintak gordetzeko  
armairuak  
Lan egiteko aulkiak

Osorik  
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

podiuma

**Koxme Barrutia,  
1945etik txirrindua  
maitatuz**

Dagoeneko makina bat gau eta egun pasatu dira, 1945ean Koxme Barrutia durangarrak txirrinduaren munduan lehen urratsak eman zituenetik. Hirurogeitabat urteko gizon honek hamabost besterik ez zituen orduan. "Lehen garaipenak hementxe lortu nituen gainera, Arrasaten, 46 eta 47an, Bar Buenon kokatutako helmugan..."

Soldaduskatik bueltan, Club Ciclista Eibarres izan zuen lehen taldea. "Hiru urte han. Gero, 54ean GAMA taldera joan nintzen, Loroño, Galdeano, Annon Barrutia nere analarekin...eta bukatu KASen bukatu nuen, 58tik 60ra".

Txirrinduak, ordea, hogerleko gutxi ematen zituen; Loroño, Langarika, Bahamontes-en garaia.

Makina bat karreratan izan genuen Koxme garaile. "Legazpian, Zumarragan, Beasainen, Elitzondon, Azkoitian...zer dakit ba nik! Ziklo krossean ere Espainiako txapeldun izan nintzen 53an, Eibarren korritutako proban. Puntan ibiltzen nintzen beti, anaia agertu zen arte. Anttonen 35 proba irabazi zituen profesionaletako lehen urtean, eta imajinatu; berarentzat lan egiten hasi behar izan nuen".

Maitasunez gogoratzen ditu kontu horiek. "Eibarren, Azkoitian...zer ez zuten asmatu gipuzkoarrek euren txirrindulariek garaipena eskura zeraten!".

Doping famatua ere Koxmek



kontatzen duenez, ez omen da gaur egungo kontua. "Auskalo zenbat pastilla hartzen ziren orduan, nola ateratzen ziren txirrindulariren batzuk tropeletik, deabrututa bezala. Han ibiltzen ziren gero gaueko lauretan logelan bueltaka, loak hartu ezinik!".

1960an txirrindulari izateari utzi, eta masailari lanetan hasi zitzaigun, mundu horretan ere izerdi ugari egin dituelarik. "Han ibili nintzen gora eta behera KAS taldeko gizonak zaintzen. Duela 9 urtetik hona, ostera, asteazkenero etortzen naiz Arrasatera, kirol munduko 20 bat lagunengana".

Elkarrizketa aurrera, hainbat txirrindulariri buruzko balorazio interesgarriak egin dizkigu Koxmek. "Merckx, Marino, Golz... Hortek dena ematen diute karrera bakoitzean, eta ez urtean behin. Eurek haunditzen diute txirrindua!".

Eta bukatu ere, etorkizuneko balorazio batekin. "Xabier Lazpiur; zaindu dezatela mutil hori, eta ez gero erre! Bera bezalako gazte apartak bait dira gure etorkizuna".

■ **Dokea sasoi onean**

Ostiral Santuan, SUDC Elkartearen eskutik Dokea izan genuen protagonistan Arrasaten. Alde batetik, 14 Elkartetako bikoteek jokaturako txapelketan, Bidegaineko ordezkariak izan genituen nagusi.

Bestetik, Udala (Alkatea eta Txispas) eta Elkarteen (Luzio eta Mena) arteko norgehiagokan politikariak galtzaile. Eurek ordaindu zituzten antxoak, ogia eta ardoa.

**III. Euskadiko  
Trialsin txapelketa**

Oñatiko San Lorenzo auzoan antolatuko da igandean, apirilak 22, Txantxiku Pedalada Elkartea eta Udal Gazte Batzordearen eskutik.

Goizeko 10,30etatik aurrera, beraz, modalitate honetan Euskal Herrian ditugun kirolari trebeena hurbiletik ezagutzeko aukera



**LA UNION**

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,  
Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12





**E D E L  
TAPIZTEGIA**

Gortina  
Alfonbra  
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA

# 1989ko autorik salduenak (II)

Hona hemen aurrekoan leku faltaz argitaratu gabe gelditu ziren bi atalak. Orduan genion bezala, hirugarren atalean nabarmena da R-21aren lehentasuna, duela gutxi kaleratu den bertsio berriak berretsi dezakeena.



Laugarren atalean, hau da, auto inportatuei bereziki dagokien atalean, nabaria da 88tik 89ra bitartean nola Audik nagusitasuna galdu duen, beste marka batzuk bere parera igo diren heinean. Guztira, Renault izan da Estatuan auto gehien saldu duen autogilea.


Mikel Intxausti

## Gorka

ILEAPAINDEGI MIXTOA



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27  
ARETXABALETA



PEÑACOBA  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
79 14 01  
ARRASATE

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
ARETXABALETA

## ORTZI erretegia

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA


ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN  
IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....  
Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa:77 08 15

## ARRASATE PRESS

77 05 65



# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia edukil ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aldi berean, erabilerazak.
- Marmol berde koloreko zuntziluzko azalak, 24 kilatetako urez sutan eginak estapanzioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokomposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

DICCIONARIO AMAIA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



**OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)**

**Euskara ikasteko erabili beharreko obra**

**Ernesto Amaia Argitaletxea**

Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO

Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

## Ezagutza-tresnen garrantzia

Azken artikuluan, eskolako "kurrikulum"aren barnean, prozedura edo ezagutza-tresnen garrantzia azpimarratzen zen. Hau da, bizitzarako, goi-mailako ikasketak jarraitzeko, benetan ikasteko, edozein lan, eskolan edo eskolatik kanpo egin ahal izateko, oinarrizko ezagutza-tresna batzuk landu behar dira.

Hona hemen hainbat prozedura:

- Entzumena: entzuten ikasteak, adi egoteko ahalmenak, gure barnean isiltasunari tokia emateak... beste norbaiti entzuteko, berarekin komunikazioan sartzeko, edo norberaren kontzentrazioa ahalbidetzen dute.

Gaur egun ahalmen hau txiki-txikitik asko landu behar dugu, gure bizimoldeak arlo honetan ez bait digu laguntzen.

- Autonomia: lan edo eginkizun bat egiteko eman behar diren pausuak aurkituz joatea, eta bakoitzaren lana antolatzeko ahalmena, tresna oso ga-

rrantzitsuak dira, eta Haur-Eskolatik landu behar direnak.

Aldi berean ordena, disziplina pertsonala, etab. ari gara lantzen,.

- Taldeko lana egiteko ahalmena ere ikasi egiten da: arauak errespetatu, koordinazioa lortu, pertsona bakoitza kontutan izan, rol desberdinak baloratu, etab.

- Ikaskuntz iturri ezberdinak, txiki-txikitik eta progresiboki erabiltzeko ahalmena: liburuak, ikusentzungailuak, elkarriketak, inkestak, elementu naturalak, fisikoak, etab.

- Irakurketa zaletasuna "paregabe-ko" ahalmena da: liburuekin disfrutatzeko, behar den informazioa aurkitzeko,... Tresna honekin haurra hainbat ahalmen lortuz joango da: sintesia, idea garrantzitsuenen aurkikuntza, hizkuntzaren aberastasuna, kritika, etab.

- Ahozko espresioa eta idazteko ahalmena: bakoitzaren esperientziak,

lanak, lanaren prozedurak, etab. aurkezteko ahalmena.

- "Kritikoa" izateko ahalmena: Esperientzia, irakurketa, eduki, egoera ezberdinen aurrean egiazko egaria eta jakinmina edukitzeko ahalmena da.

Ezagutza-tresnak hain inportanteak izanik, ezin ditugu ahaztu puntu hauek:

1. Ikas-teknikak txiki-txikitik landu behar dira, ikas-prozesua progresiboak bait da.

2. Ikas-teknikak bizitza normalean ikasi behar dira, testuinguru konkretuetan, klase guztietan.


3. Metodologia eta tresneria egokiak beharrezkoak dira: metodologia aktiboa eta biblioteca, laborategi, etab. duinak.

4. helduen laguntza oso garrantzitsua da. Helduak jarri behar du haurra bide hauetan.

*Klarion taldea*

### Euskaldunon elkarlana posible ote?

Partehartzaileak:



• **Mari Karmen Garmendia**  
(HPIN-ko idazkaria)

• **Paulo Agirrebaltzategi**  
(EKB-ko lehendakaria)



Moderatzailea:  
**Julen Arejolaleiba**

Eguna:

Tokia:

1990eko apirilak 26, osteguna. **Monterron Kultur Etxea.**

Ordua:

**Arratsaldeko 7ak.**



# Nerabezaroa eta tabakoa erretzeko ohitura

Erretzen duten gaztetxo guztiek ez dute sentsazio atsegingarria nabaritzen horretan. Mutilen arteko %70,4ak eta nesken arteko %73,47ak bakarrik aitortzen dute atsegin dutela; aitzitik, nesken arteko %17,81ak eta mutilen arteko %67,2ak ez zaiela gustatzen esaten dute. Mutilen artean %22,4ak dioenez, berdin zaie erre ala ez, oso gogoko ez dute baina ezin dute esan ez zaienik gustatzen ere; indiferenteen portzentaia hau %8,22koa da nesken artean. Beraz, plazerrarekin zerikusirik ez duen beste motibazioen bat aurkitu behar da gaztetxo hauek erretzera zerk bultzatzen dituen jakiteko.

Are gehiago, kopuru narbarmena da, bai nesken bai mutilen artean, erretzeak kalte egiten diela aitortzen dutenena: erretzaileen ia erdiak mo-

lestiaren bat nabaritzen du erretzean, batez ere, maiztasunez erretzen dutenen kasuan.

Horrela bada, atsegin ez izan arren eta gainera kalte egiten diela aitortu arren, ez dute ohitura hori baztertzen.

Argi eta garbi dago beste satisfakzioen batzuk dituztela ekintza honekin, oso gutxi bait dira gainera erretzeko premia fisikoa dutenak. Erretzaileen arteko herenak bakarrik -nesken artean pittin bat gehiagok- aitortzen du erretzeko premia fisiko hori duenik.,


Inkesta egin zuten guztiek argi eta garbi dute tabakoa osasunerako kaltegarri dela. Banaka batzuk badira (4 mutil, eta 6 neska) tabakoaren kaltegarritasunaz ezer ez dakitenak, baina gainerakoek ederki dakite tabakoa ez dela onuragarria osasunerako.

Atsegin ez izan arren, kalte egin eta erretzeko premiarik ez nabaritu arren, erretzen jarraitzen da. Zergatik?

Zalantzarik gabe, bizigirotan, gizartean aurkitu behar da azalpena. Informazio-kanpainen, kale, irrati, telebista, egunkari, etab. etako publizitateak bidaltzen dituzten mezuak ez dira nahikoa.

Informazioak alda lezake jarrera, baina jarrera hori jokaerarekin ez bada osatzen, ezer gutxitarako balio du, eta hau ez da nerabeentzako bakarrik, berdin gertatzen da helduekin ere. Kanpainen informazio-iturri balio izan dute, baina helduen artean, oraindik erdiak arrisku neurritik gora erretzen jarraitzen du.

*Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso*



## Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE

# Euskadiko Txirrindularitza Federazioa


Aurreko batean, Euskadiko Txirrindularitza Federazioak zur eta lur, aho zabalik utzi ninduen. Egunkariko "kirolak" sailean iragarki ederra argitara eman eta gainera euskaraz, benetan poztu egin nauen iragarkia. Mendiko bizikletan edo kideko bizikletan dabilenari baliozgarri gerta dakioken informazioa luzatu digu, euren aholku eta guzti.

*"Mountain bike egin ezazu. Egizu zikloturismoa"*

- Adiskide berriak aurkitukodituz
- Paisaje dederrak ezagutuko dituz
- Bide berriak aurkituko dituz.
- Dibertituko zara eta osasuna hobetuko duzu.

*Baina... seguru egizu. Federazaitez!*

*"Euskadiko Txirrindulari Fami-*



*lian sar zaitez"*

Horretarako informa zaitez:  
*Arabako Txirrindularitza Elkarte*

*tea*  
Ramiro de Maeztu, 4 (Kirol Etxea). 01008 Gasteiz. Tfnoa: (945) 13 37 68

*Gipuzkoa Txirrindularitza Elkargo*

Velodromo de Anoeta. 20080 Donostia. Tfnoa: 46 05 40


*Bizkaia Txirrindularitza Federakundea*

Jose M. Escora, 16 (Kirol Etxea)  
48013 Bilbo Tnoa.: 94-441 50 49

Hiru Probintziako Elkartean informazio zehatzagoa jasotzeko aukera emango dizute.


Badakizu seguru ibiltzeko federatzea da egokiena eta seguruen. Anima zaitez!

*K. U.*



*Salterain*

**Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgariak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...**



**P. C. V.zko LEIHOGINTZA**

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

**20.500 ARRASATE**

# Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

*Poliza aintzindariak.*

**LAGUN ARO**  
SEGUROS ASEGURUAK





Aste gazte

"Gazteak ederrak,  
indartsuak, biziak,  
grinatsuak, ezjakin eta  
lotsatiak ez balira,  
gizarteko elkarbizitza  
ezinezkoa litzateke"

Atenaseko Solon  
(VI-V K.a.)

**Ikastaroak**

- Clown Ikastaroa (berezkotasun eta umorezko antzerkia). 17 urtetik gorakoentzat. Apirilak 28-Maiatzak 1 (Maiatzaren leko zubia) Matrikula doan.
- Jota Ikastaroa. 15 urtetik gorakoentzat. Maiatza eta ekainean, ostiraleror, 7etatik 8'30etara. Matrikula doan.
- Zanko Ikastaroa berria maiztzean. Bi larunbatetan, 4'30 etatik 6'30etara. Matrikula doan.

**Bekak**

- Ondorengo arloetan espezializazio eta hobekuntza ikasketak egi-

teko bekak: musika, dantza, antzerkia, ikusentzuneakoak, arte plastikoak, diseinua, errestaurazioa, artxibagintza, museologia, bibliotekonomia, kultur kudeaketa, errestaurazio praktikak Arteleku eta Tolosako artxibategian.

Beken diru-kopurua: atzerrirako 900.000-1.500.000 pta. urteko  
Estatu espainiarerako: 600.000-800.000 pta. urteko  
Arteleku eta Tolosa artxib.: 600.000

Epea: 90-5-31  
(90-3-20 G.A.O., 55 zk.)

- Sorkuntzarako laguntzak: ondoren aipatzen diren sorkuntza eta ikerkuntza proiektuak burutzeko: arte plastikoak, argazkigintza, bideoa, musika.

Laguntzak: 350.000-1.000.000 pta. bitartekoak

Epea: 90-5-31  
(90-3-20 G.A.O., 55 zk.)

- Laguntzak sustapenari: egilearen obren sustapen eta zabalkundearako proiektuak gauzatzeko. Arloak: arte plastiko eta ikusentzuneakoak, nahiz arte eszenikoak.

Laguntzak: 225.000-1.000.000 pta. bitartekoak

Epea: 90-5-31  
(90-3-20 G.A.O., 55 zk.)

- Bidaia sariak: arte eta artisautza

alorretako iraupen laburreko ikastaro eta feria, erakusketa eta bestelako eginkizunetan parte hartzeko dirulaguntzak. 250.000 pta. gehienez.

Epea: 90-5-31  
(90-3-20 G.A.O., 55 zk.)

**Lehiaketak**

- "Portugaleteko Hiria" I Ipuin Lehiaketa. 14 eta 30 urte bitartekoentzat. Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Gai librea. 6 eta 12 folio bitartekoak. Sariak: hizkuntza bakoitzean 3 sari: 30.000, 20.000 eta 10.000 pezetakoak. Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 25a baino lehen.

- Argazki eta Diapositiba I Lehiaketa, Mundakako Gazte Zar mendigoizale taldeak antolatuta. Gaia: Mundakako Itsasadarra (ikusmira, fauna, flora, salaketa, etab.). Sariak: modalitate bakoitzean hiru sari: 25.000 eta trofeoa, 10.000 eta 5.000. Lanak aurkezteko epea: uztailaren 6a baino lehen.

**Udalekuak**

- Gipuzkoako Diputazioak eta Ikastolen Elkarteak urtero antolatzen dituzten udaleku eta kanpamentuetara izena emateko epea zabalik. Txanda guztietarako kuota: 13.000 pta.

**Iosu**  
argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.  
Erreportaiak.  
Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

**IBARRA Garajea S.A.**

EBRO  
NISSAN

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**Felipe Arrizabalaga**  
aroztegia

Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

Erdiko kale. 79 19

Ferrerias. 79 87 62

**ETXEBIZITZAK**

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuek deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabeaz etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupe bat edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.

**LANA**

- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egingo. Deitu tfno honetara: 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, jattetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikaste-txeetan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko. Tfnoa: 79 06 66. Goizez.
- Kontabilitateko klase partikularrik emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu batez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neska etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neska etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuek dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskalduna etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gauez.

**SALEROSKETAK**

- Gozotegirako labe handia salgai. Bere fermentaziorako kamara duelarik. Saba markakoa. Tfnoa: 79 23 58
- BMX Torrot bizikleta salgai. 12.000 pta. Baita JOMA markako takozko zapatilak ere. Berri-berriak. 36. zenbakia. 1.500 pta. Dei 79 97 69 telefonora 8etatik aurrera. Inma.
- Bi markako SONOR soporte platerak, Bateriazko aulkia eta paiste 3000 Bude markako platoa saltzen dut. Gutxi erabilita daude. Telefonoa: 79 91 59 Xabier (eguerdiko 1etatik 2etara)
- R-5 GTL kotxea saltzen dut. SS-M aluminiozko llantak. Beltza. Zapaia solarra. Telefonoa: 79 91 59. (Eguerdiko 1etatik 2etara)
- PC erostegatik Toshiba ITX-10 ordenadore salgai, 64 k. Baita ere Sanyo SLIM-3 magnetofonoa, 2 Yoostich eta hainbat joku. Guztira: 20.000 pza. Tfnoa: 78 15 86.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Egoera onean. Tfnoa: 79 15 96
- R-12 salgai. Dei 8etatik aurrera 79 33 43 tfnora.

**DENETARIK**

- Otsailaren 14ean monopatina galdu nuen Santa Barbara inguruan. "Punk Smile" idatzia du atzekaldean. Mesedez, ikusi baduzu dei 79 95 71 telefonora (Josu)

**ARRASATEN HILDAKOAK**

- Maria Mercedes Muñoa Lasaga.  
Apirilaren 5ean. 67 urte
- Maria Uribesalgo Errasti.  
Apirilaren 6an. 96 urte.
- Enrique Ibarra Polo.  
Apirilaren 8an. 52 urte
- Juan Agustin Vega Gorostiza.  
Apirilaren 8an. 56 urte
- Petra Casés Molias.  
Apirilaren 8an. 99 urte
- Francisco Bermejo Gonzalez.  
Apirilaren 8an. 47 urte
- Teresa Perez Cano.  
Apirilaren 10ean. 94 urte
- Urbano Ruiz Moran.  
Apirilaren 16an. 87 urte
- Francisco Valor Valor.  
Apirilaren 14ean. 79 urte

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

Azoka 1,  
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

## Famauen ahotik

### Paulo Garai; Bost urtien ARANSGIko presidente Bergan (I)



*Lehenengo zentrua, Donostien'*

ARANSGIk esan gure dau: "Asociación para rehabilitación de niños sordos de guipuzcua"

Frantzien bazien, anpliaziño haundiko protesisekin, gorrendako halako zentruak. Eta ba, han informaziñue jaso eta 67xen formau zan ARANSGIn lehenengo zentrua Donostien.

Eta hemen ba, Iñaki Marurik, eskola profesionalien maixu ibilitekuek, ume bat auken gorra eta Donostiekuorren barri euki auenien, Atxabaltan, Mondrauen eta Bergan, ume gorra aukienakin egon eta Donostiekuei eskatu eutzien laguntzie. Hareik laguntzia emungo eutziela eta ba, halan Bergan, aiuntamentuek itxitteko lokal baten hasi zien.

#### 72xen Bergako Presidente

Bergako lokaloi preparatan hirurogei mille pezetako sorrak eñ zittuen, eta, neuana etorri zien, ze eñ jeikien preguntez.

Esplikau eutzien kasuoi eta esan nutzien; Hor lehenengo-lehenengo juntie ipiñi bihe dozue, presidentie, sekretari-xue eta tesorerue. Presidentie gaiñera ipiñi holako kasuik eztaukena, bestela erozein eskakizun eiterakuen konplejue-

kin fan bihe dozue ta.

Ondo pentsau jation ideioi eta gero Bergako juntara deittu nindduen.

Juntan presidente, neu jarteko eta ba, nik esan nutzien; ni baiño hobeto prepa-rauteko jentie bazala hortarako. Baiñe, eurak dale ta dale eta ba, halan 72xen presidente nonbrau nindduen.

#### Planteamentu zabalauen premiñe

Presidente nonbrau nidduenien, xei ume besteik ezezen, eta gurasuekin eñddekko junta baten proponiru nauen; hain ume gutxikin ezin jeikiela ezer eñ eta ba, planteamentu zabalau bihe zala, Zumarraga, Elgoibar, Durango, Aramaixo...danera hamazortzi herri hartuaz.

Konforme agertu zien horrez. Orduen, Lazkurain alkatiei esan gutzen, bieran moruko zentro bat eitteko asmue gaukela. Alkatiek erantzun euzkun; bera konprometiruten zala, Agorrosiñen, geuk biher aiñe terrenu de balde ixteko.

Baietza emun auenien atara gauen herri baxotxai proporziñuen, zenbat diru ipinttie tokauko jakon eta hamazortzi herrixek rekorriru gittuen proiektue esplikauaz. Danak emun auen baietza, besuek zabaldute hartu gindduen.

#### Diru gehixau biher

Obrioi eñ eta montau gauen dana moderno eta lau milloittik xei t'erdí ingurure urten euzkun. Baiñe, kolaboraziño onak euki gittuen; Iñaki Azkaratek eta Jose L. Elkoroi oiñ alkate dauenak tranpa guztiek ekixien eta pentsau nundik atara gittuen beste hiru milloi t'erdí, "Del ministerio del ejercito, asistencial social" eta dirue sobran euki gauen gero.

*Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai*

## Zelebrequerixak

Antton Ezkerdo sartu zan medikuan etxian iletak darixola, eskuak ezkerreko alderdixan zittuela, aiene-ka batian.

— Hainbeste aspamenturik zer pasatzen jak, Ezkerdo? —medikuak.

— Gibeledko miña ero...

— Gibeledko miña? Eta ezkerrian miñ? Gibela eskumako aldian daok, baiña...

— Bai, baiña ni ezkertixa nok...



Goizeko beratzixak Plazentziako kanpantorrian. Tallerreko uezabak esan ei zotsan lanian sartu-barri zan mutil gazte bati:

— Hi, joan hari gure etxera eta esaixok andriai amozua emoteko.

Badoia mutillo, joten dau atia eta esaten dotsa andriai:

— Egunon. Zure gizonak esan dosta amozua emoteko.

— Sartu, sartu barrura -esan zotsan momentu bat dudan egon ondo-ren.

Andriak arrautza paria txorixua-kin etara zotsan mahira eta baitta gure mutillak laster jan be arda basokara batekin. "Eskerrikasko" esanda bueltau zan taillerera.

— Nun dok nere armozua? -uezabak atian serixo.

— Zure armozua? neuretako zala uste neban. Jan ein dot.

— Ederki txotxo. Listogixa haiz tailler honetarako eta joan hari de-ppentian kalera.

(Roman Garmendia plaentzia-rrak kontatua)

*Juan Martin Elexpuru*



## OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*  
Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE





Arrasateko Batzokiko ezpatadantzariak 1932

**S**an Juanak ziren, 1932koak, Errepublika garaian beraz. Urte hartan edo urtebete lehenago asko jota, Arrasateko Batzokikoek Ezpatadantzari Taldea sortu zuten, *Lukas Iturberen* zuzendaritzapean.

Batzokiko (gaurko Banco Guipuzcoanoa dagoen lekuan) lorategian atera zuten argazkia.

Ezkerretik eskuinera zutik, *Ramon Aranbarri*, gaur egun Iturbe egoitzan; *Jesus Amozarrain*, hilda; *Gregorio Orobengoa*, hilda; *Iñaki Arrieta*, Arrasaten bizi da; ikurriña daramana *Iñaki Olazabal*, S.Andresen bizi da; *Pako Bidaburu*, gerran afusilatua; *Benito Etxebarria*, Mondrako atezaina izango zena, hilda; *Luzio Berezibar*, Mondragoen bizi da eta *Jose Antonio Arregi*, "Axeri"

baserriko semea. Belauniko *Lukas Iturbe*, Aretxabaletako maisua eta ezpatadantzarien irakaslea, hau ere hilda.

Bizi laburra izan zuen taldeak, zoritxarrez, ze 1934ean desegin egin zen. Euretariko batzuk saiatuko ziren gero umeei eta, erakusten, baina gerra berehala jausi zitzaien gainean eta dena pikutara bidali.

**Onduline**



**TXOMIN HERIZ**

eraikuntzarako materialak



Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

**BOLINTXO**

**Kirolak**

Ibargarai 10, BERGARA

# Begi-flash



Argazkilarik batzuk goiko irudiaren zortzi eszena desberdin jaso dituzte. Lau dira, ordea, eta lau soilik, irudiaren une berean atereak. Zein dira?

ENBIDOTik hartua, ELKAR-en baimenarekin

**ARRASATE  
PRESS**

**77 05 65**

**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**BERANGO**

**Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atek**

Legarreko pabiloi industrialia  
(behea) Tfnoa: 79 01 92  
**ARRASATE**

## Amodio-leku aproposen inbentarioa

Gutxi dira.

Ospe handia du udaberriak, baina  
udara hobe da.

Baita udazkenak igandeeekin gurutzatuz  
- berez platanok bezain hori diren  
zenbait hiritan-  
sortzen dituen arrakalak ere.

Neguz leku asko baliogabetzen du:  
iparrari so dauden atariak,  
ibai-ertzak,

eseri leku publikoak.

Eliza zaharren kanpoko horma-bularrek  
bazter egokiak sortzen dituzte,  
elurra bada ere erabilgarriak.

Baina ameskeriarik ez: hotz-giroa  
eta haize umelak  
oztopo larria dira.

Arauk, gainera, debekuean du fereka  
(ume, txakur eta beste zenbait animalia-  
narru-atal zehatz batzu -interés bakoak-  
izan ezik) eta "ez ikutu, izen txarra da zigorra"  
begiratu guzietan irakur daiteke.

Noruntza ihes egin, bada?

Non nahi begi okerrak,  
betoskol oinazkatuak,  
kupidabako niniak,  
begi-sare gaitzesleak,  
zelatan, itzalgaizto, mehatxuka.

Bakarrik ibili, ez da -agian- beste biderik,  
samurtasunez husturiko arima  
asperduraz eta etsipenez bete,  
garai gogor, aiherzale honetan.

Angel Gonzalez

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**TITARE**

**LENTZERIA FINA**

Olarte kalea 8,  
**ARRASATE**

■ **Denbora pasa.** Euri gehiegi jausi ez bada ere, denbora luzea pasatu da Elene Lizarraldekin aurkeztu duen programa hau azkenengoz ikusi nuenetik.

Ostiral Santuz izan nuen ikusteko aukera eta gustora egon nintzela esan behar. Elkarrizketa eta erreportaiak laburrez osatu zen programa, kasu honetan Baztan ingurukoak gehienak. Entretenigarri eta interesgarri egin zitzaizkidan.

Dituen planteramentuekin, *Denbora pasak* aukera paregabea eskaini ohi du astero-astero Euskal Herriko bazter, txoko eta pertsonaia ezezagunak hobeto ezagutzeko. Ez dario bestetan hain kargatuta izaten den asmo didaktikoa eta asteburuko ekitaldiekin nolabaiteko lotura duenez, ba emaitza arina eta atsegina da. Dena borobiltzeko, Elene Lizarraldekin ederto betetzen du lana.

■ **Aste Santua irrati-telebistan.** Erruz aldatu dira gauzak Aste Santuan irrati-telebistak isildu edota musika sakroa besterik ematen ez zutenetik.

Aste Santu honetan ez diot kasu handiegirik egin ez batari ez besteari, egia esan, baina diferentziak ezin nabariagoak iruditzen zaizkit. Ostegun Santuan adibidez, *Funtzioan* entzundako palabrota errosarioa nekez entzungo zen direla urte batzuk.

Irratiaren dialean barrena egindako zenbait txangotan, ez zen elizako musika askorik entzuten. Espainiako irratiak izan dira gehien arduratu direnak Andaluzia inguruko pasoak eta, zuzenean edo erreportaitan ematen. Hemengoetan, mezaren bat edo beste ezik, gauza gutxi. Garaiak aldatuz doaz.

■ **Aberri Eguna telebistan.** Beste urte batzuetan legez, aurten ere ETBk Aberri Egunerako alderdi desberdinek egindako deialdi diferententeen berri eman zuen. ETB leian politikariak euskaraz berba egiten agertu ziren eta behin eta berriro argi gelditu zen, askoz zein txarto egiten duten euskaraz. Gutxienez euskaraz ere egiten dute, esango du norbaitek eta, bai, egia da, baina euskaraz bezain txarto egingo balute erdaraz, makina bat irri eta burla entzun beharko lukete. Partidu guztietan daude halakoak eta ez dut uste euskaraz egitera animatzeaz gain, euskaraz ere ondo hitz egin dezatela eskatzea ere sobera egongo litzatekeenik.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Planeta galerazia:** Igandean, 15,25etan, Fred McLeod-en pelikula. Hogei urtetan zehar, Morbius doktorea eta bere alaba, Altaria, bakarrik bizi izan dira urruneko planeta batean. 2200. urtean Lurretik talde bat iretzen da euren bila; baina Morbius doktorea ez dago prest bere jakintzak beste edonori erakusteko. Antzesleak, Pidgeon, A. Francis eta L. Nielsen.

■ **Hiltzeko jantzita:** Brian de Palma-k zuzendutako filmea, asteazkenean, 9etan. Antzesleak Michael Caine, Angie Dickinson eta Nancy Allen.

Liz Blake, goi mailako neska, hilketa baten lekuko da. Ondorioz, hiltzaile eta poliziek ere, jarraitu eta erasotu egingo dute. Berak bizirik irauten duen bitartean, ordea, miste-rioren giltza dauka eskuetan.

■ **Kirolak:** Ostiralean, gaueko 11etan, Super Match saioa.

Larunbatean, 15,20etan NBA ligako saskibaloia neurketa; eta 8etan, plater ederra: Erreala eta Valencia taldeak aurrez-aurre Ato-txan, UEFA jokoan dagoelarik. Prestatu beraz txandala eta bufandak.

Igandean, bukatzeko, 18,10etan ACB ligako saskibaloia neurketa

bideoak



Beroa. Produkzioa eta neurketa

Bideo honetan, fisikaren zenbait oinarri azaltzen da, adibide teknologiko egokien bidez.

Zenbait injinerutza-prozesutan beroak duen garrantzia azpimarratzen da. Bero-iturriak, neurtzeko metodoak, etab. erakusten zaizkigu, guztiak ere adibide praktikoaren bidez.

OSTADAR IRRATIA  
(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



**A**berri Egunerako Auzo Lagunek 5.000 bazkari prestatu behar zituela eta, ATBko mutilak Auzo Lagunera joan ziren erreportaia egitera. Sukaldeetan sartzeko higie-ne arauk agindu bezala jantzi behar eta *Josu Galdos* adibidez, piura horiekin ibili behar izan zen, bisita amaitu arte.

**A**ste Santuko Zenbat buru, hainbat aburu mahaingurua bizi-bizia izan genuen. Bertan *Eneko Bergara*, *Jose Mari Astigarraga* parrokoa eta *Xabin Arrieta* izan ziren. "Bazko eguna ailegatu bitartean, korapilo batez bizi izaten genuen Aste Santua" zioen Xabinek.



**M**usikantoi egiten duten artistak su eta gar ari dira dokumentazioa biltzen "Ez dok Amairu" taldea sortu zeneko 25 urte bete diren honetan. Badakizue Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo eta beste asko talde horretan ibili zirela. Ea ezagutzen dituzuen 1970. urteko argazki honetan.



aste ko

## PROGRAMAZIOA

- 23 ASTELEHENA**  
 20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztuta  
 20.20 **Mondrasport** Jon Anduezak aurkeztuta  
 20.50 **Kontzertua Kantilena** hiruko sortu berriak Monterronen eskaini zuen kontzertuaren zati batzuk.  
**24 ASTEARTEA**  
 12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
 12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)  
 12.50 **Kontzertua** (bezperakoa)  
**25 ASTEAZKENA**  
 20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezen eskutik  
 20.20 **Zenbat buru hainbat aburu** Mahingurua, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Arrasate Musikal. Gonbidatuak: Juan Artzamendi, Juan Luis Castillo, Aitor Orbengoa eta Virginia.  
**26 OTEGUNA**  
 12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
 12.20 **Zenbat buru hainbat aburu** (bezperakoa)  
**27 OSTIRALA**  
 20.00 **Berriak** Aurkezlea: Koldo Rodriguez  
 20.20 **Erretratoa** Jose R. Elortzak aurkeztua. Gonbidatua, Ixabel Iturbe, maistra izandakoa.  
 20.50 **Musikantoi** Aurkezleak: Pepe, Mikel, Patxi eta Asier. Programa monografikoa, Barrkada taldeak Madriilen emandako kontzertua.  
**28 LARUNBATA**  
 12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)  
 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)



**ENARA**  
OSAGIRRIAK



Maalako Errabala 21,  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



LURRINDEGIA

**ERTZ**

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Dibertsioan baino ez duzu pentsatu azken boladan eta parrandan galdu duzu denbora. Hasia zara ondorioak antzematen, osasunean batez ere.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Norbaitek bere menpean hartu zaitu Leo, eta bizitasun gutxikin eta axolagabekeria diharduzu eguneroko eginbeharretan; zure gizalegea ez dator bat jokabide honekin.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Hitzegiteko eta lanak aurrera ateratzeko zailtasunak daukazu; zure buruarekin duzun konfidantza eza eta besteenganako azaltzen duzun mesfidantzaren ondorioa baino ez da.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Jokabide arau gabezia daukazu. Bizimoduarekiko daukazu ikuspegia kritikan bakarrik oinarritzen da, gogor hartzen zaituela uste duzulako.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Nahigabetuta eta umore txarrez zabilta. Ez duzu ezertarako borondaterik azaltzen, ez zarelako batere eroso sentitzen. Lasai, gaisotasun iragankorra baino ez da eta.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Ez zara gauzak esatearekin bakarrik konformatzen, baieztatu egiten dituzu; zure ingurukoek borondate handia jarri beharko dute zure arrazamenduen eraginik izan ez dezaten.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Gaizki dabilta zure metabolismoa eta zirkulazioa; honek ez dio harmonian bizi izaten laguntzen zure intimitateari, anabasa eta larritasun ugari sortzen dizkizulako.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Sentibera eta erakargarria zara eta lagun berri asko izango duzu inguruan. Ez itzazu berdin hartu denak, baliteke horien artean leloren bat edo beste egotea eta.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Nigandik zeozter nahi duena datorrela bera!, hau da zure jokabidea. Mundu honetan ez dago inor hazitarako Acuario, ikasi jendearekin harremanetan jartzen.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Antolatzaile, planifikatzaile eta egile ezin hobe zara negoziotetan; behar adinako idealismo, ikutua emaezu, irabaziak izango dituzu eta.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Zorte ona datorkizu, jasandako kalteak leundu egingo bait dira eta diuzun ondasunak ugarituko. Iraunkorra izango den harremana izateko behar duzun lagun hori zure inguruan dabil.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Agudezia eta adimenez gainezka zaude. Abilezia honekin ez duzu gauzak gehiegi sakondu beharrik izango, gainbegiradarekin bakarrik nahi adinako informazioa lortuko duzulako.

# KIXKA

Antzerki taldea

*“Nolako zirrara”*

Antzerki, dantza eta txotxongiloa umeentzat

Eguna: apirilak 21

Ordua: arratsaldeko 6etan

Lekua: Amaia antzokia

Sarrera: 200 pta.

Arrasateko Udala

*Eskaintza Handia*

**2x1**

**ORDAIN EZAZU BAT  
ETA ERAMAN  
BESTE BAT "OPARITAN"**

**EROSKI**


Markatzen Du.

Apirilaren 12tik Maiatzaren

**ARRASATEKO**

**MAXI EROSKI**

- *Astelehenetik larunbatera, 9etatik gaueko 9etara denetik familia guztiarentzat.*
- *Espezialistak ekoizkin freskotan.*
- *Kafetegia-Jatetxea.*
- *Beti eskura, etengabeko eskaintzak.*
- *Aparkaleku eroso*



Monterron Parkea.

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek eginga

**Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa,  
ez begiak itxi.**

**Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi.**

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxa: 791489 ARRASATE



**Zabalik gaude!!! Erakusketa berria Santamainan**